

MAILAKAKO HIZKUNTZ DESAGERTZEA: ERAGILE SOZIOLOGIKO ETA EZAUGARRI SOZIOLINGUISTIKO NAGUSIAK *

Agurtzane Elordui

EHU/UPVko irakaslea

Gaur egun lurraren bazter guztietan ediren ditzakegu hilzorian dauden hizkuntzak. Azken bostehun urteotan politikoki eta ekonomikoki indartsuak diren gizatalde gutxi batzuen hizkuntzen erabateko hedatzea gertatu da. Aldiz, kontinente guztietan hizkuntza nagusien menpean dauden hizkuntza txikiagoen desagerpen bortitzak edo mailakakoak ikus daitezke.

Ez da ezezaguna historian zehar ere hizkuntza handi nahiz txikien desagerpena. Badirudi, baina, azkenengo mendeotan gertatutako etnia txikien kolonizatzeko eta potentzia nagusien indartzeak hizkuntza handien hedapena eta txikien suntsipena arras areagotu dituztela. Halaber, azken hamarkada hauetan teknologiak bideratu duen gizataldeen mogimenduak eta, oro har, aro modernoak ekarri dituen gizarte-aldaketek eta komunikabideen presentziak biziki lagundu dute hizkuntza handien indartzean eta txikien behin betirako desagerpenean.

Lan honetan hizkuntz desagertzeaz edo hizkuntz heriotzaz arituko naiz. Batetik, hizkuntz heriotza aztertu duten lanen ikergai nagusiak aurkeztuko ditut. Halaber, mailakako hizkuntz heriotza jasaten duten hizkuntzak elkartzeko dituzten ezaugarri soziolinguistikoak erakutsiko ditut. Besteak beste, gaur egun desagertzeaz dagoen hegomenbaldeko bizkaie-

rak¹ (hemendik aurrera HMB) hilzorian dauden beste hizkuntza zenbaitekin amankomunean dituen eragile soziologiko eta ezaugarri soziolinguistikoak agertuko ditut².

Hizkuntzen desagertze bilakabidea aztergai duten lanei so eginez gero, berehala ohartzen gara «hizkuntz heriotza» terminoa bera egoera soziolinguistiko nahiz linguistiko ezberdinetarako erabili izan dela. Lau hizkuntz heriotz mota ezberdin antzeman daitezke. Alde batetik, «bat-bateko hizkuntz heriotza» edo «hizkuntz heriotza fisikoa» (*sudden language death* edo *physical language death*) deitua dugu. Hizkuntz heriotz mota honetan hizkuntza bat-batean desagertzen da hiztun guztiak hilak edota erahilak direlarik, hala nola, Ipar Californiako yahi, Pazifikoko tasmaniera (Swadesh 1948) eta Hego Californiako luiseño eta cupeño hizkuntzen kasuak (Hill 1983). Maiz, hiztun guztiak hilik gertatu ez diren kasu askotan ere, gogorkeria politikoak eta norberaren babes beharrak bizirik dirauten hiztun bakanak amahizkuntza uztera bultzatu dituzte. Hizkuntz heriotz mota honi «errotikako hizkuntz heriotza» (*radical language death*) deitu izan zaio (Campbell eta Muntzel 1989, Dressler 1981, Hill 1983). Mota honetakoa da El Salvador-eko cacaopera, lenca eta pipil hizkuntzen desagertzea (Campbell 1975, 1992, Campbell eta Muntzel 1989). Hirugarrenez, «behetik gorako hizkuntz heriotza» (*bottom-to-top language death*) deitu izan dena dugu. Kasu honetan estilo erreperitorioak behetik gorako murrizketa jasaten du (Hill 1983). Mota honetan sartzen diren hizkuntzak bakar-bakarrik egoera formal eta erritualetan gordetzen dira. Honako hizkuntz heriotz bilakabidea jasan du Arizonako yaqui hizkuntzak. Gaur egun yaqui testuinguru erritualetan erabiltzen da nagusiki (Hill 1983).

Laugarrenez, lan honetan aztergai dugun hizkuntz heriotza mota dugu, «mailakako hizkuntz heriotza» (*gradual language death*), alegia. Mailakako hizkuntz heriotza komunitate elebidun edo eleaniztun diglosikoetan gertatzen ohi den fenomeno da. Hizkuntz heriotz kasu hauetan hizkuntza meneratzaile batek hizkuntza meneratu bat mailaka ordezkatzan du, hizkuntza meneratuaren betebeharrak soziolinguistikoak erabat bereganatzen dituen arte. Ordezkatze honetan hizkuntz komunitateko hiztunak hizkuntza txikian elebakarrak edo txikian eta handian elebidunak izatetik, hizkuntza handiaz soilik mintzatzera igarotzen dira, hizkuntza meneratuaren galtzea ondorio duelarik. Honetako hiltze bilakabidea jasaten ari dira beste askoren artean lan honetan erkagai izan ditugun Afrikan, Etiopia hegomenbaldeko kwegu (Dimmending 1989); Ameriketako gutxiengo hizkuntza europarren artean Canada-ko frantsesa (King 1989), Pennsylvania-ko alemaniera (Huffines 1989), New York-eko gaztelera (Silva Corvalán 1992); Ameriketako bertako hizkuntzen artean, algonkiar familiako arapahoren atsina dialektoa (Taylor 1989), Mexiko-ko nahuatl (Hill 1983, Hill eta Hill 1986), Guatemala-ko xinca (Campbell eta Muntzel 1989); Europan Eskozia ekialdeko Sutherlandeko gaelikoa (Dorian 1973, 1976, 1977a, 1977b, 1978, 1980, 1981, 1982b), bretoiara (Dressler 1972, 1981, 1988, 1991, Dressler eta Wodak-Leodolter 1977, Kuter 1989, Willianson, Van Eerde eta

¹ Hasi aurretik nire eskerrik beroenak adierazi nahi dizkiet Ricardo Gómez eta Miren Lourdes Oñederrari lan hau eratzera eman dako aholku eta egindako oharrenatik. Halaber, eskerrik asko hegomenbaldeko bizkaieraren materialen bilketarako burutu ditudan galdetegiak egonarri handiz erantzunez laguntza paregabea eman didaten Bizkaiko hegomenbaldeko hiztun guztiei eta Joseba Rementeria Ugaoko abadeari hiztunekiko harremanak bideratu eta erraztu dizkidalako.

1) Bonaparte printzeak *Le langue basque* lanean, alegia, printzeak bizkaieraren inguruan osatutako azken banaketa dialektologikoan, *Arrigorriagako aldakia* deitu izan zuen hizkerari deritzogun hegomenbaldeko bizkaiera. Printzeak hizkera honen barruan Arrankudiaga, Arrigorriaga, Barakaldo, Basauri, Etxebarri, Galdakao, Laudio, Ugao, Zaratamo eta Zoilo herrien inguruko euskara sartu zuen.

2) HMBren ezaugarri soziolinguistikoek nahiz linguistikoek jabetzeko hogeita hiru hiztunen lekukotasunak hartu ditut kontutan. Inguru honetako egoera soziolinguistikoaren eragileez eta ezaugarri soziolinguistiko orokorrez jabetzeko aipatu hiztunei eginiko galdetegi baten ondorioetan oinarritu naiz. Halaber, Eusko Jaurlaritzako argitalpen zerbitzuak 1986. urteko eroldaren arabeko Euskal Autonomi Elkarteke azterketa demolinguistikoaren datuak (Eusko Jaurlaritzak 1989) eta EUSTATEk 1991. urteko eroldaren arabeko azterketako datuak izan ditut kontutan.

3) Ferguson-ek (1959) diglosia deskribatzerakoan aditzera eman legez, diglosiaren ezaugarrien artean garrantzi handikoa da goi-mailako hizkuntzaren edo aldaeraren (*high variety* (H) bere hitzetan) eta beheko aldaeraren (*low variety* (L)) artean dagoen funtzioen banaketa osagarria: «*One of the most important features of diglossia is the specialization of function for H and L. In one set of situations only H is appropriate and in another only L, with the two sets overlapping only very slightly*» (Ferguson 1959: 328). Diglosiaren beste ezaugarri azpimarragarria goi-mailako hizkuntzak edo aldaerak nabarmenki behekoak baino prestigio handiagoa izatea da: «*In all the defining languages the speakers regard H as superior to L in a number of respects*» (Ferguson 1959: 328).

Willianson 1983), Greziako arvanitika (Trudgill 1977, 1983, Sasse 1990), Austriako hungariera (Gal 1989); Australiako dyirbal (Schmidt 1985a, b) eta warlpiri (Bavin 1989), eta euskararen dialektoen artean, besteak beste, aezkera (Camino 1995), Ultzamako euskara (Ibarra 1995) eta hegomendebaldeko bizkaiera (Elordui 1993, 1995a, 1995b).

Mailakako hizkuntz heriotzaren ikerketaren aztergaia zehaztuko badugu, elebitasuna eta diglosiaren arteko bereizketa kontutan izan behar dugu (Ferguson 1959 eta Fishman 1967). Elebitasuna pertsona zehatz bati dagokion fenomeno indibiduala da. Pertsona batek hizkuntza bi ikasi eta berneratu dituen kasuetan pertsona elebiduna dela esaten da. Pertsona horrek baldintza pertsonalen eta orokorren arabera hizkuntza baten edo bestearen erabilpena aukeratzen du. Diglosia, ordea, komunitate osoari dagokion fenomeno da. Gizarte batean hizkuntza bi (edo gehiago) edo hizkuntza baten bi aldaera ezberdin —hala nola dialekto zenbait eta hizkuntza estandarra— bizi direnean eta bakoitzak gizartearen zeregin banatuak dituenenean, egoera diglosikoa dagoela esaten dugu.³

Mailakako hizkuntz heriotzaren ikerketa diglosiari dagokio funtsean. Fenomeno honen inguruko ikerketak ez du norbanakoaren ahazte-bidea ikeretzen. Ikerketa honek gizatalde oso bat hartzen du kontutan eta gizatalde horren hizkuntzak dituen ezaugarri soziolinguistiko eta linguistikoak uztartzen ditu. Oro har, bi ikerketa arlo nagusi jorratu izan dira mailakako hizkuntz heriotzaz aritu diren lanetan: ikerketa soziolinguistikoa eta linguistikoa, hain zuzen.

Ikerketa soziolinguistikoa maila ezberdinetan kokatu izan da. Batetik, hizkuntza baten desagerpena sorrarazten duten kanpo baldintzak, alegia, gertaera historikoak, baldintza ekonomikoak eta, oro har, hizkuntza bat erabiltzeari uztera bultzatzen duten eragile soziologikoak ikertu izan dira (Dimmendal 1989, Dorian 1981, Dressler eta Wodak-Leodolter 1977, Gal 1979, Kieffer 1977, Knab eta Knab 1979, Kuter 1989, Miller 1971). Bestalde, baldintza eragile hauek guztiak direla eta, orain arte hizkuntz heriotza ikertu duten lan soziolinguistikoaren aztergai nagusiak honako hauek izan dira: hizkuntz komunitatean sortzen diren hiztun talde ezberdinak (Dorian 1973, 1977a, 1977b, 1981, 1982a, Schmidt 1985a, 1985b, Silva-Corvalán 1992), komunitatean lehian dauden hizkuntzen eginkizun soziolinguistikoaren banaketa (Dorian 1973, 1977a, 1977b, 1981, Elordui 1993, 1995b, Hill 1978, 1983, Hill eta Hill 1977, Schmidt 1985a, 1985b, Trudgill 1983) eta hizkuntza mota honetan ohikoa den transmisio linguistikorik ezaren fenomenoak (Dorian 1981, Elordui 1994, 1995b, Schmidt 1985a, 1985b, Trudgill 1983).

Ikuspegi linguistikotik, bestalde, egitura linguistikoan gertatu diren egitura-aldaketak aztertu dira, hiltze prozesuan dauden hizkuntzen artean amankomuneko ezaugarri linguistikoak eta aldaketa-joerak ikusi nahian. Alde batetik, ukitze-egoera estuaren eraginez hizkuntza terminaletan gertatzen diren mailegatze mota ezberdinak ikertu dira (Hill 1983, Hill eta Hill 1977, Sasse 1990). Bestalde, hizkuntz heriotzaren ikerketa linguistikoaren

gai nagusiak izan dira: erabilera zein erabilgarritasun linguistikorik ezak hizkuntza hauetan sorrarazitako emankortasun linguistikoaren urritzea (Andersen 1982, Dressler 1972, 1981, 1988, Elordui 1994, 1995b, Tsitsipis 1984), egitura desegite eta errazte prozesuak (Campbell eta Ringen 1981, Dorian 1973, 1978, 1986, Elordui 1993, 1995a, 1995b, Sasse 1990, Schmidt 1985b) eta, oro har, hiztun terminalak hizkuntzaz mintzatzeko duten gaitasunaren murriztea konpentsatzeko darabiltzaten aterabideen azterketa. Ikerketa arlo honen beste maila batean hizkuntza hauen ezaugarri linguistikoak diren monoestilismoak (Dorian 1985, Hill 1973, Elordui 1995b), kode-aldaketak eta arau bateraturik gabeko aldakortasun morfologikoak ere azterketa oparoa izan dute (King 1989).

Erabat banatuak diruditen ikerketa arlo hauek, aztergai ezberdina duten arren, hizkuntza terminalen azterketan osagarriak izan behar dutela uste dut. Izan ere, HMBren ikerketan, Dressler-en (1972, 1981) eta Giacalone Ramat-en (1983) ildo beretik, hizkuntza terminalen egoera soziolinguistikoak eragiten duen erabileraren murrizteak hiztunek hizkuntzaz mintzatzeko duten gaitasuna murrizten duela ikusi dut. Hiztunen gaitasunaren murrizteak, bestalde, hizkuntzaren egitura linguistikoan islada zuzena du, hizkuntza horretan hainbat egitura-aldaketa linguistiko sorrarazten dituelarik. Honela, nire orain arteko ikerlanen egitasmo nagusiak arlo linguistikoari lotu zaizkion arren, HMBren aditz egituran gertatu diren aldaketak aztertzean (ik. Elordui 1993, 1995a, 1995b), hizkera honen ezaugarri soziolinguistiko nagusiak kontutan izan ditut eta aldaketa linguistiko ugariaren azalpenak azterketa soziolinguistikotik ateratako ondorioetan oinarritu ditut.

Aurkezpen honetan ikerketa soziolinguistiko honen ondorioak aurkeztuko ditut. Honetarako, desagertzearen dauden hizkuntza zenbait eta hegomendebaldeko bizkaiera elkartzen dituzten eragile soziologikoez eta ezaugarri soziolinguistikoez arituko naiz. Beste aurkezpen baterako utziko dut egoera soziolinguistiko terminalak hiztunen hizkuntz gaitasunean eta hizkuntzen beren egitura linguistikoan duen eraginaren azalpena.

HIZKUNTZ DESAGERTZEAREN ERAGILE SOZIOLOGIKO NAGUSIAK

Indar politikoek, ekonomikoek eta kulturalak baldintzatzen dute beste ezerk baino gehiago hizkuntza baten hedatzea edo galtzea. Gutxiengoen hizkuntza erabiltzeari uztera bultzatzen duten eragile soziologikoen artean menpekotasun politikoa, ekonomikoa eta kulturala izaten dira nagusi. Hizkuntza batek gizartean izan dezakeen estatusa eta beraren hedatzea hizkuntza horretaz mintzatzeko den gizataldearen kopurua, boterea eta emankortasun politiko, ekonomiko eta kulturalaren araberakoa izaten da. Zalantzarik gabe, eragile hauen artean, gizataldearen estatusak hiztun kopuruak baino garrantzi handiagoa izaten du. Nonbait esan daiteke, hizkuntza baten hedatzea eta indartzea gerta dadin, hizkuntza hori

«Badirudi, baina, azkenengo mendeotan gertatutako etnia txikien kolonizatzeak eta potentzia nagusien indartzeak hizkuntza handien hedapena eta txikien suntsipena arras areagotu dituztela»

**«Ordezkatze honetan
hizkuntz komunitateko
hiztunak hizkuntza
txikian elebakarrak edo
txikian eta handian
elebidunak izatetik,
hizkuntza handiaz
soilik mintzatzera
igarotzen dira,
hizkuntza
meneratuaren galtzea
ondorio duelarik»**

nork hitz egiten duen zenbatek hitz egiten duen baino garrantzi handiagoa izan ohi duela.

Menpekotasun politiko, ekonomiko eta kulturalak menpekotasun soziala eta, beraz, hizkuntza txikiaren prestigiorik eta erabilgarritasunik eza dakartzate. Orobat, prestigio eta erabilgarritasun faltak hizkuntz komunitate terminalen ezaugarri soziolinguistiko nagusiak diren erabilerarik eza eta transmisio linguistikorik eza eragiten ditu.

MENPEKOTASUN POLITIKOA

Menpekotasun politikoari bagagozkio, mailakako hizkuntz heriotzak, aurretik aipatu ditudan bat-bateko hizkuntz heriotza nahiz errotikako hizkuntz heriotza bezalaxe, menpekotasun politikoak eta maiz gogorke-ria politikoak eraginak dira. Hizkuntzen historian bortxakeria politikoak eragindako desagertze ugariaren artean Australian eta Ameriketako Estatu Batuetan diren eta hiltzorian dauden hizkuntza gehienek desagertzeak izan ditza-kegu adibide. Europarren kolonizatzeak Ameriketako eta Australiako gizarteetan izan zuen eraginak erabat apurtu zuen aurreko leinuen bizimodu-ua. Leku bietan europarrek progresuaren izenean leinukide gehienak hil zituzten. Gainera, genozidioaren ondoren, leinu ezberdinetan bizirik zira-uten leinukide urriak erreserbetan bildu zituzten inolako leinu bereiz-ke-rik egin gabe. Genozidioak eta geroko bereizketarik gabeko biltzeak leinu bakoitzaren erakundeak, ohiturak, balio tradizionalak eta, zer esanik ez, hizkuntzak zeharo desagertarazi zituzten. Hill-ek uto-azteken familiako hizkuntzen hiltzea dakarten eragileak agertzerakoan, bortxakeria politikoak eta honek ekarritako egoera ekonomiko, kultural eta osasun egoera larriak azpimarratzen ditu bereziki (Hill 1983: 261).

Gaur egun ere, hainbat mende iragan direlarik, bortxakeria politiko horren eragina eta gizartearen izan dituen ondorioak erabat begibistakoak dira. Egungo australiarren artean, esaterako, arbaso europarrak dituzten gizataldeen eta bertako leinukideen ondorengoen artean ezberdintasun sozial, ekonomiko eta kultural nabarmenak hauteman daitezke. Kasu gehienetan antzinako leinuen ondorengoak egun beheko mailako biztanleak izaten dira. Schmidt-ek (1985b:15) agertutakoaren arabera, gaur egun ezaugarri sozial zenbaitek bereizten dute «gizon zuriaren» gizataldea Australiako jambun gizataldea osatzen duten kideetatik. Batetik, ondasun eta aberastasunaren arabera erabateko banaketa dago. Ekonomikoki jambunen artean jende behartsuaren kopurua handia da. Hezkuntzari dagokionez ere, gizatalde honen kideen artean oso arrunta da eskola-heziketa bizitzaren lehendabiziko urteetan baizen ez izatea. Boterea eta autoritatea, gainera, gizatalde zuriaren eskuetan dago. Jambunen artean oso gutxi dira gizartearen nolabaiteko botere edo zeregin politikoa dutenak.

Euskararen ahultzean ere bortxakeria politikoak erabakiorra izan da. Aztergai izan dudana hegomendebaldeko bizkaieraren eta, orokorki, euskararen bat-bateko atzeratzea ekarri duten faktoreen artean aipagarriena- t-akoak dira Francoren diktadura eta, bereziki, erregimen honek estatu

espainoleko gutxiengoen hizkuntza eta kultura askorekin izan zuen jarre-
ra politiko suntsitzailea. Inguru honetako euskaldunei egin dizkiedan
inkesta soziolinguistikoek agerian uzten dute erregimenak euskaldunei
euskaraz hitz egin ez zezaten ezarri zien debekua eskolara, kalera, lante-
gietara eta, oro har, testuinguru publiko guztietara hedatu zela (cf. Elor-
dui 1995b). Garai hartan eskoletara joaten zen biztanlego euskaldun urria-
ren lekukotasunen arabera, eskoletako maisuen eta, oro har, instituzio
osoaren hizkuntz politika gaztelaren aldekoa eta zeharo euskararen au-
rkakoa zen. Are larriago dena, euskararen erabiltzeari uztea zigor fisiko
nahiz psikologikoez derrigortzea garai hartako eskoletako erabilbide
arrunta zen. Kanean ere, batez ere diktaduraren lehendabiziko garaietan,
salatari talde antolatuek eta autoritateen ordezkariak euskaraz mintza-
tzea eta beren ustetan Espainiako kulturaren batasuna arriskuan jartzen
zuen edozein praktika egitea salatzen zituzten. Salaketen ondorioz jasa-
ten ziren zigorren artean inoiz kartzela ere ediren zitekeen.

Benetako bortxakeriak edo sarraskiak izan gabe, hizkuntzen balioztatze
politiko ezberdinek soilik ere hizkuntzen desagertzea sorrazten dute
maiz. Izan ere, maila sinbolikoan baino ez izan arren, hizkuntza batzuk
beste batzuen menpekotasun politikoa jasaten dute. Ezberdintasun hauek
batez ere hizkuntzen erabilgarritasuna eta hizkuntza bakoitzak gizartean
izan dezakeen zeregina ebaluatzeko orduan nabari daitezke. Esaterako,
gizarte diglosikoak dituzten zenbait estatu eta herri europarretan hizkun-
tza nagusiak politikoki hizkuntza nazionalizat edo estatu mailako hizkun-
tztatzen dira. Besteak, gutxiengoen hizkuntzak, kasu gehienetan
hizkuntza «erregionaltzat» jotzen dira. Fenomeno hedatu honen adibide
bat Britainian bretoiera eta frantsesaren artean gertatzen da (Kuter 1989).
Bretoiera eta frantsesa egoera ezberdinetan edo zeregin ezberdinetarako
erabil daitezkeen hizkuntza gisa ikusi beharrean, kontrajarririk dauden
hizkuntzatzen hartzen dira. Maila politikoan frantsesak hizkuntza nazio-
nalaren estatusa du; bretoiera, aldiz, hizkuntza «erregionala» da. Kuter-
ek (1989: 87) ironikoki adierazi bezala, azken hau Frantziaren folklore ko-
loredunen ezaugarri bezala onartu da.

Antzeko egoera ediren daiteke ipar euskal lurraldeetan ere. Izan ere, ipa-
rraldeko inguru askotan, bereziki turistikoetan, frantsesa hizkuntza
nagusitza hartzen da eta euskararen erabilera «turistikoa» edo «folklo-
rikoa» izatera mugaturik geratu da.

MENPEKOTASUNEKONOMIKOA

Erabateko inposaketa politikoa jasan ez den kasuetan ere, menpekotasun
ekonomikoak gizatalde meneratuen kideak talde meneratzailearen bizi-
modua eta hizkuntza bereganatzera behartu ditu, gizatalde meneratua-
ren deskulturizatzea ondorio duelarik. Jokaera hau ez da munduan dau-
den hizkuntza nagusien inguru geografiko berberetan mintzatzen diren
hizkuntzekin soilik gertatzen, ekonomikoki meneratuak diren gizataldeen
hizkuntza guztiekin baizen. Menpekotasun ekonomiko delatzen eta, Afrikako

4) Honen adierazgarriak dira gaur
egungo erroldako datuak. EUSTATEk
1991ko erroldan oinarritatuta eman
dituen datuen arabera, Basauriko
50.224 biztanleetatik 2.612k euskara
ama-hizkuntza dute, 1317k euskara
eta gaztelera eta biztanlegoaren ge-
hienaren ama-hizkuntza, hau da,
45.570 biztanleena gaztelera da.

«Indar politikoek, ekonomikoek eta kulturek baldintzatzen dute beste ezerk baino gehiago hizkuntza baten hedatzea edo galtzea. Gutxiengoen hizkuntza erabiltzeari uztera bultzatzen duten eragile soziologikoen artean menpekotasun politikoa, ekonomikoa, eta kulturala izaten dira nagusi»

ehizlari eta biltzaile gizataldeen artean ugari beraien hizkuntzak laga — Etiopiako kwegu (muguji ere deitu dena) eta shabo hizkuntzak, Tazaniako ongamo hizkuntza, Ugandako kuliak hizkuntzak, e.a— eta beste gizatalde txiki boteredunagoen hizkuntzak bereganatzera behartu dituzte (Dimmendaal 1989). Etiopia hegomenbaldean kwegu (edo muguji) hizkuntzaz mintzatzen den ehizlari eta fruta biltzaileen gizataldeak, esaterako, talde finkoagoak diren mursi eta bodi nekazari eta artzain taldeen hizkuntzak bereganatzera iragan dira. Hitzun hauek maiz elebidun aktibo izatetik bigarren hizkuntza gisa bereganatutako hizkuntza baizik ez erabiltzera jo dute (Dimmendaal 1989).

Ekonomi aldaketek eta, batez ere, industrializatzek sorrarazitako deskulturizatzea aipagarrietakoa da hizkuntza txikien erabateko desagertzea dakarten eragileen artean. Gizarte txikietako kideak gizarte industrializatuetan integratu beharrak maiz hizkuntza baten desagertzea ekarri du edo erabat eragin du bederen. Industrializatzeko prozesuek eta berauekin datorren urbanizatzeko ekonomikoki meneratzaileak diren gizataldeen hizkuntzen hedatzea eta gutxiengoaren hizkuntzen erabateko baztertzeta nahiz pidgintzea ekarri dituzte munduko bazter guztietan (Mühlhäusler 1974, Trudgill 1983). Hill-ek (1983), esaterako, nahuatl hiztunek Mexikoko ekonomia nazionalean integratzeko beharra eta, bereziki, nahuatl gizartearen proletarizatzea eta industrializatzea azpimarratzen ditu hizkuntzaren desagertzea dakarten eragileen artean. Mende honetako 40-50 urteen artean Mexikoko gobernuaren politikak bultzatu zuen proletarizatzea hedatu zenetik, nahuatl hiztunek beren nekazari komunitateak utzi eta kanpoan, herri edo hiri handiagoetan, bilatu behar izan zuten ogibidea. Mexikoko gobernuak, bestalde, ahalegin guztiak egin zituen nahuatl kideek beren ohiturak eta hizkuntza utz zitzaten.

Euskal Herriko inguru industrializatuetan ere gertaera honen beste adibide argia dugu. Bizkaiko hegomenbaldean guda ondorengo industrializatzeko prozesuak eta honekin batera etorri zen bete-beteko urbanizatzeko eragin erabakiorra izan zuten inguru horretako biztanlegoaren bizimodu aldaketan eta, zer esanik ez, hizkuntz aukeran ere. Batetik, industrializatzeko nekazal munduaren deskulturizatzea ekarri zuen. Industrializazioaren prozesu honetan herriko jende gazte gehienak nekazaritzari utzi eta industrietan hasi zen lanean. Nekazal bizimoduaren hausketaz gain, bizimodu industrialak zekartzan hizkuntza eta hiri-kultura nagusitu ziren. Euskaldunentzat industria munduan sartu beharrak erabat arindu zituen euskararen uztea eta gaztelararen ondo ikasi beharra.

Bestalde, industrializatzearekin batera etorri zen bat-bateko inmigrazioak ere euskararen kalterako hainbat ondorio ekarri zituen. Inmigrazioaz gaztelerazko elebakarra (edo zenbait kasutan euskara ez zen beste hizkuntza eta gazteleraz mintzatzen zen elebidun) zen jendearen kopurua arras handitu zen. Honela, herri askotan euskaldunak biztanlego gehiena izatetik gutxiena izatera iragan ziren. Gainera bat-bateko inmigrazioaren ondorioz sortu zen egoera diglosikoan gaztelera zen nagusi, kopuruan eta boterean⁴. Euskara, ordea, urte gutxitan geratu ziren gunek nekazarie-

tara eta inoiz hirian harreman estuak zituen jende euskaldunen arteko erabilerara mugaturik geratu zen.

Zalantzarik gabe, gutxiengoaren hizkuntzek gizarte tradizional aurre-industrializatueta maizago eta hobeto jarraitu dute bizirik. Sarritan industrializazioaren indar ekonomiko eta sozialek erakunde estatalak eta maila ezberdinetako batasunak ekarri dituzte, hala nola baldintza sozioekonomikoen eta gizarteko baldintzen estandartzea. Estandartzeak, bestalde, hizkuntza estatalen erabilera eta erabilgarritasuna areagotzen lagundu du eta sarritan gutxiengoaren hizkuntzen erabileraren eta erabilgarritasunaren murriztea sorrarazi ohi du. Ondorioz, ekonomiaren ikuspegitik hizkuntz komunitatean lehian dauden hizkuntzak balorazio ezberdinetako hizkuntza bihurtzen dira. Gutxiengoaren hizkuntzak gizarte berriko lan-munduan baliogabeak dira eta «modernidadearekin» zerikusirik ez duten esparruetara mugaturik geratu dira, nekazal gizarteetan, erlijioan eta maila pribatuan esaterako. Hizkuntza haundiak, berriz, aro modernoarekin batera etorri diren teknologiaz, medikuntzaz, mekanikaz eta abarrez mintzatzeko gai diren hizkuntza bakar bihurtu dira.

MENPEKOTASUNSOZIALA

Aipatu eragile ekonomiko eta politikoeekin batera eragile sozialez, edo bestela esan, gizarte maila altuetako gizataldeen irudiaren eraginaz ere mintza daiteke. Gizarte guztietan goi-mailako jendearen, hau da, gizatalde boteredunen hizkuntz ohiturek, sozialki hizkuntz eredu egokitzat ematen dena ezartzen dute. Antzina aristokraziaren, nobleziaren eta burgesiaren hizkuntz ohiturak hedatzen ziren. Gaur egun dirudun jendearenak eta komunikabideetan agertzen diren taldearenak (artistak, politikoak, kazetariak, e.a.) hartzen dira eredu linguistikotzat. Gizatalde indartsu hauen aukera, beraz, oso erabakiorra da hizkuntzen desagertzea zein hedatzea gerta dadin. Dorian-ek (1981), esaterako, gaelikoaren galtzearen eragile garrantzitsuenen artean Eskoziako gorteak gaelikoa baztertzea eta beren harremanetarako ingelesa eskuratzea jartzen ditu (Dorian 1981: 40). Orobat, Kuter-ek (1989: 84) bretoierak sozialki duen lekua finkatzerakoan eragile handitzat jotzen du aristokratek eta gizarte maila Erdiko jendeak frantsesa aukeratzea. Era honetan frantsesa «jende finaren» eta «heziketa oneko» jendearen hizkuntzatzat jo da. Bretoiera, berriz, «jende zakararren» hizkuntzatzat hartu da.

Euskararen kasuan ere gizartean goi-mailako jendeak, Bizkaiko hegomen-debaldeko kasuan guda zibilaren ondoren sortu zen burgesiak, euskararekin inolako ardurarik ez izateak eta honen erabilera ez defendatzeak gizartean euskarak berez zuen prestigio falta sendotu zuten. Industrietako jabe edo agintariek, baita beraien artean zeuden euskaldunek ere, euskara gordetzeari ez zioten inolako garrantzirik eman. Aitzitik, inoiz eleaniztasunak sor zitzakeen arazoak aitzakiatzat harturik, lantegietan euskaraz mintzatzeko debekatzen zuenik ere bazegoen. Ondorioz, euskara nekazal mundura bazterturik geratu zen eta nekazari eta jende ez-ikasias-

«Ekonomi aldaketek eta, batez ere, industrializatzeko sorrarazitako deskulturizatzea aipagarrienetakoa da hizkuntza txikien erabateko desagertzea dakarten eragileen artean»

«Gizarte guztietan goi-mailako jendearen, hau da, gizatalde boteredunen hizkuntz ohiturek, sozialki hizkuntz eredu egokitzen ematen dena ezartzen dute»

rekin lotzen zen hizkuntza prestigiogabetzat jo zen. Euskara hitz egitea, beraz, zigortua ezezik, sozialki gaitzetsia ere bazegoen. Izan ere, gizar-tean euskara erabiltzeak eta, batez ere, gazteleraz euskal kutsuaz mintza-tzeak «borono» eta «aldeano» kalifikatiboak jasotzeko arriskua zekarten.

Oro har, esan daiteke goi-mailako jendeak hizkuntza txikiaren erabilera ez defendatzeak eta gizarteko harremanetarako beste hizkuntza bat auke-ratzeak gizar-tean hizkuntza txiki hauek izan duten ezezko balorapena areagotu egin dutela.

MENPEKOTASUNKULTURALA

Eragile kulturalen artean hizkuntza txikiek testu idatzirik eta literatura-rik ez izatea azpimarratu behar den arren, zalantzarik gabe maila kultu-ralean haurren heziketa moduak beste ezerk baino areago baldintzatzen du hizkuntza baten indartzea edo ahultzea. Gizarte bateko haurren so-zializazioak, alegia, lehendabiziko eta bigarren sozializazioa hizkuntza meneratzailean izateak, hizkuntza txikiaren erabilpen eta transmisio arrun-ta oztopatzen du. Dressler eta Wodak-Leodolter-ek haurren bigarren so-zializazioa hizkuntza meneratzailean izatea faktore eragile nagusitzat jo-tzen dute bretoiera lehendabiziko sozializazioan ez garatzeko eta, ondo-rioz, hizkuntza honen transmisio arrunta ez gertatzeko (Dressler eta Wo-dak-Leodolter 1977: 40). HMBren kasuan ere Francoren diktadura garaian eskoletan euskara debekaturik izateak eragin erabakiorra izan zuen garai hartako haurrek euskarari utz ziezaioten eta gurasoak berak ere etxean bertan gazteleraz baizik mintza ez zitezen (cf. Elordui 1995b).

Eskoletan hizkuntza meneratzailea erabiltzearen eragina hiru maila ez-berdinetan ematen da. Batetik, bigarren sozializazioa hizkuntza menera-tzailean gertatzen den gizarte askotan gurasoek berek, eskolara joaterakoan haurrek hizkuntza handia ikasteko zailtasunik izan ez dezaten, etxean amahizkuntzaren erabiltzeari uztea erabakitzen dute. Bide honetatik hiz-kuntza meneratzailea haurren lehendabiziko sozializazioaren hizkuntza bihurtzen da. Hill eta Hill-ek (1986) fenomeno hau erakusten digun adibi-dea ematen digute nahuatl hizkuntzaren kasua azaltzerakoan. Malinche herrian haurren eskolatzea 1960aren inguruan hasi zen. Eskoletako poli-tika hastapenetatik erabat gazteleraren aldekoa zen. Maisu-maistren be-ren ustetan nahuatl ez zen eskolan erakusteko hizkuntza erabilgarria. Hill eta Hill-ek jasotako elkarrizketek argiro erakusten dute nahuatl hiztunen ustetan hurrei haurtzarotik nahuatlez ez hitz egitea eskolan nahuatlez mintzatzeagatik beraien seme-alabek izango lituzketen zailtasunei itzuri-tzeko biderik egokiena dela. Guraso elebidun hauek ez dute uste beren seme-alabek etorkizunean nahuatl beharrezko eta erabilgarri izango du-tenik. Aitzitik, gurasoek etxean hizkuntza txikia irakastea haurren heziketa onerako, alegia, gazteleraz eman beharreko heziketarako, oztopoa baizen ez dela uste dute. Gauza bera gertatzen da Schmidt-en (1985b) arabera Australiako Jambun gizataldeko kideen artean. Gurasoek ez diete seme-alabei dyirbal transmititzen haurrak etxean ere ingelesa soilik entzuten

badute, eskolan hobeto integratuko direla uste baitute.

Gainera, gutxiengoaren hizkuntzek jasan ohi duten diskriminazio soziala arras instituzionalizaturik dagoen fenomeno da. Hortaz, gehiengoaren kultura eta hizkuntza menperatu behar dira gizarteak dituen pribilegioez (lan instituzionalak, hezkuntzarako erraztasunak, e.a.) gozatu ahal izateko. Bigarren sozializazioan eta, bereziki, eskolaren azken epeetan geroago lan giroan izan beharreko estatusa eratzen hasten da. Epe honetan, gurasoek batez ere, gizartean estatus hobea duen hizkuntzaren alde egiten dute. Eskolan ikasten dena, irakurtzea, idaztea eta, oro har, etorkizun batean ogibidea lortzeko egiten diren ahalegin guztiak hizkuntza nagusiari dagozkio. Gainera, ogibide ugarietan, aginte publikoekiko harremanetan, iritzi publikoetan eta komunikabideetan hizkuntza nagusiaz baliatzen da. Beraz, gizartean edozein aldetan egokitzeko eta lan egin ahal izateko erabat derrigorrezkoa da hizkuntza nagusia bere osotasunean menperatzea. Azkeneko belaunaldietako jendearentzat hizkuntza txikiaren erabilpena edo geroagoko ikastea beren arbasoen kulturarekiko lotura sentimentalak bultzatua da eta, oso gutxitan, hizkuntzaren baliagarritasunak izan ditzakeen ordain sozial edo ekonomikoetan oinarritua.

Bestalde, haurrak askoz motibatuago daude modernitatea, teknika eta abarra dakartzan hizkuntza erabiltzeko. Bigarren pauso gisa, beraz, haurrek berek, eskolako maisuen eta gurasoen laguntzaz, hizkuntza prestigioduna gizarteko zeregin gehienetan askozaz baliagarriagozat jotzen dute.

Azkenez, belaunaldi berrietan heziketa izan duten haur gehienek idazteko, irakurtzeko eta, oro har, kultur eginkizunetan iharduteko orduan askoz hobeto menperatzen dute hizkuntza handia etxeko hizkuntza baino. Bide honetatik hizkuntza txikia gero eta gutxiago erabiltzen da gazteen artean. Gazteentzat erabat baliogabe bihurtzen da (Denison 1977: 21).

PRESTIGIORIK ETA ERABILGARRITASUNIK EZA

Gorago esan bezala, aipatu eragile guztiek heriotz bidean dagoen hizkuntza batean ohiko ezaugarri soziologiko nagusi bi izaten dituzte ondorio. Batetik, gizartean prestigiorik eza eta maila pertsonalean norberaren kulturarekiko eta kultura horretako hizkuntzarekiko lotsa dakartzate. Bestetik, hizkuntza txikiak nolabaiteko prestigioa duen kasuetan ere, hiztunen artean haren ustezko erabilgarritasunik ezaren fenomeno hedatzen da.

Prestigioari dagokionez, gizarte hauetan goi-mailako hizkuntzek eta behe-mailako hizkuntzek erabat aurkako ezaugarriak dituzte. Goi-mailako hizkuntza heziketa onaren eta zibilizazioaren hizkuntza da. Behe-mailako hizkuntza, ordea, maiz nekazarien, arrantzaleen eta, orokorrean, «heziketa onik» ez duten gizataldeen hizkuntzat hartzen da. Hortaz, gizartean lehendabizikoa prestigioduna da eta bigarrena, ostera, prestigiogabea. Goiko hizkuntzaren nagusitasuna horren bortizki sentitzen ez den kasuetan ere, hizkuntza honen soinua edo egitura politagoa dela, logikoagoa

**«Gizarte bateko
haurren sozializazioak,
alegia, lehendabiziko
eta bigarren
sozializazioa hizkuntza
meneratzailean izateak,
hizkuntza txikiaren
erabilpena eta
transmisio arrunta
oztopatzen du»**

«Maiz ama-hizkuntza oso estimatzen duten hiztun taldeen artean ere uste zabaldua da hizkuntza hori egungo bizitza modernoan ibiltzeko baliogabea dela»

dela eta garrantzizko pentsamenduak eta mezuak transmititzeko egokiagoa dela pentsatu ohi da.

Gutxieste hau arras lot dakiok e aipatu dudan ustezko erabilgarritasunik ezari. Maiz amahizkuntza oso estimatzen duten hiztun taldeen artean ere uste zabaldua da hizkuntza hori egungo bizitza modernoan ibiltzeko baliogabea dela. Hizkuntza meneratzailea gizarteko kanpo harremanetan, merkataritzan, lantegietan, eta abarretan erabiltzeak, haurren eskolarizatzea hizkuntza meneratzailean gertatzeak eta, oro har, gizarte modernoan bizimodu berriko zeregin guztietan hizkuntza meneratzaileaz baliatzeak biziki oztopatzen du hizkuntza txikiaren gaurkotzea eta modernizatzea. Hitzuna, azkenean, bere bizitzaren zeregin gehienetan hobeto konponetzen da hizkuntza handiaz txikiak baino. Bilakabide honen amaian, hizkuntza nagusiak txikia ordezkatu du zeregin soziolinguistiko guztietan, baita etxeoketan ere. Orduan desagertzeaz dauden hizkuntzen ezaugarriak diren transmisio linguistikoaren hausketa eta erabileraren murriztea zeharo areagotzen dira.

Hizkuntzen desagertzea dakarten eragile politiko, ekonomiko eta kulturalen eta berauek hizkuntzen ezezko balorapenerako sorrarazten dituzten eragile berrien aurkezpena laburtzeko, gizartean ezaugarri erabat kontrajarriak dituzten bi hizkuntza mota bereiz ditzakegu. Ekonomikoki, politikoki eta sozialki nagusia eta indartsua den gizataldearen goi-mailako hizkuntza *versus* maila hauetan guztietan ahula den behe-mailako hizkuntza ezberdintzen dira. Maila politikoan, lehendabizikoa nazio mailako hizkuntza izan daitekeena da; bigarrena, «erregionala» izatera bai-zen ezin hel daitekeena. Ekonomikoki, lehendabizikoa baliouduna da; bigarrena, berriz, baliogabea. Maila kulturalan, lehendabizikoa kultur hizkuntza da; bigarrena, kultura gabeko jendearena. Lehendabizikoa hizkuntza moderno da, edozertaz hitz egiteko gaitasuna duena; bigarrena, zaharkitua eta erabilera eta lexiko mugatadun hizkuntza. Ondorioz, hizkuntza edo aldaera prestigioduna transmititzeko eta erabiltzeko egokiena eta komenigarriena bihurtzen da; hizkuntza prestigiogabea, berriz, transmititzeko eta erabiltzeko ez nahikoa ona.

BELAUNALDIEN ARTEKO HUTSUNE LINGUISTIKOA ETA URTEETAN ERROTUTAKO ERABILERA LINGUISTIKOAK ALDATZEKO ZAILTASUNA

HMBren kasuan desagertze bidean dauden gainerako hizkuntzetarako agertu ditudan faktore eragile bertsuak ditugu. Aurreko ataletan ikusi legez, beste hizkuntza terminal askotan bezala, menpekotasun politikoak, ekonomikoak eta sozio-kulturalak eragin dituzte hizkera honen eta, oro har, euskararen erabileraren gelditzea eta transmisio arruntaren hausketa. Dena dela, euskarak, beste edozein hizkuntzak bezala, berezko historia du eta, beraz, eragile soziologiko berezkoak ere.

Nire ustetan, HMBren desagertzearen eragileak azalduko baditugu, hizkera honen galtzearen historian bi epe edo garai bereizi behar ditugu.

Batetik, hizkeraren erabilera arruntaren hausketa bortitza gertatu zen Francoren diktaduraren garaia dugu eta, bestetik, behin-betiko hiltzea gertatzen ari den diktadura-ondorengoa. Lehendabiziko garaian, bortxakeria politikoa, premia ekonomikoa eta menpekotasun sozio-kulturalak eragin zuten euskaraz mintzatzeari eta transmititzeari uzteko beharra. Halaber, eragile hauen ondorioz, euskararen aspaldiko prestigiorik eza eta ustezko erabilgarritasunik eza indartu ziren, azken hauek euskara alboan lagatzeko aitzakia bihurtu zirelarik. Bigarren epean, aipatutako eragileei zenbait eragile berri gainera dakizkieke. Nire ustez, epe honetan hizkera honen atzeratzea sorrarazten duten edo berreskurapena oztopatzen duten eragile aipagarrienak dira erdiko belaunaldietako euskaldun faltak sorrarazi duen hutsune linguistikoa eta urteetan sendotutako erabilera linguistikoak aldatzeko zailtasuna.

Lehendabizikoaz den bezainbatean, gaur egungo hegomendebaldeko bizkaieraren datu soziolinguistikoei baino ez diegu begiratu behar konturatzeko guda ondorengo urteetan belaunaldien arteko transmisio linguistiko arruntaren gelditze bortitza gertatu zela. Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzu nagusiak 1989an agertutako Euskal Autonomi Elkarte azterketa demolinguistikoen datuek argiro erakusten digute gertaera hau. Basaurin, Arrigorriagan, Ugao eta Zaratamon erdiko belaunaldietan eta, bereziki, guda ondorengo lehen urteetan jaio zen biztanlegoan euskaldun kopurua biztanlego helduagoaren artean baino askoz urriagoa da:

	- / 1930	1930 / 1950	1950 / 1960
Basauri	%21,04	%12,03	%6,18
Arrigorriaga	%26,84	%17,8	%8,89
Ugao	%50,79	%31,93	%26,94
Zaratamo	%64,18	%42,53	%32,72

Diagramak erakusten dizkigun datuetan nabaria denez, diktaduraren garaian egon zen transmisioaren gelditze bortitzak, erabilerarik ezak eta inmigrazioak eragin handia izan zuten inguru honetako euskaldunen kopuruaren murriztean. Inguru honetako herri industrializatuenetan, hots, Basauri eta Arrigorriagan 65 urtetik gora duen jendearen artean ehuneko laurden bat euskalduna den bitartean, 40 eta 60 urteen artean dagoen biztanlegoan % 6,18a edo %8,89a baizik ez da euskalduna. Zaratamon eta

«Lehendabiziko garaian, bortxakeria politikoa, premia ekonomikoa eta menpekotasun sozio-kulturalak eragin zuten euskaraz mintzatzeari eta transmititzeari uzteko beharra. Halaber, eragile hauen ondorioz, euskararen aspaldiko prestigiorik eza eta ustezko erabilgarritasunik eza indartu ziren»

«Bizkaiko inguru honetan familia askotan bizirik dirauten lehendabiziko belaunaldiko kideak euskaldunak, erdiko belaunaldietakoak erdaldunak eta azken belaunaldikoak erdaldunak edo, kasurik hoberenetan, euskaldun berriak izatea guztiz arrunta da»

Ugaon, neurri apalagoan bada ere, joera berbera nabari daiteke. Herri hauetan helduen artean euskaldunen kopurua erdia izatetik erdiko belaunaldietako jendearen artean ehuneko laurdenena baizik ez da. Hortaz, Bizkaiko inguru honetan familia askotan bizirik dirauten lehendabiziko belaunaldiko kideak euskaldunak, erdiko belaunaldietakoak erdaldunak eta azken belaunaldikoak erdaldunak edo, kasurik hoberenetan, euskaldun berriak izatea guztiz arrunta da.

Erdiko belaunaldietan euskaldun gutxi izateak bi ondorio nagusi izan ditu inguru honetako euskararen egungo egoera soziolinguistikoan. Batetik, testuinguru publikoetan ezezik, etxe barruan ere gazteleraz mintzatzeko ohitura hedatu da. Bestalde, belaunaldi hauetako jendeak euskara nahikorik ez jakiteak euskararen transmisio kate arruntaren berregituraketa arras eragotzi du.

Azpimarratu behar da, dena dela, inguru hauetan egin dudana inkesta soziolinguistikoaren arabera, gazteleraz mintzatzeko ohitura euskaraz erdizka dakiten belaunaldi hauetako jendearen artean baino areago zabaldu dela. Antza, euskaldun heldu-oso askori ere, batik bat aspaldi euskara eguneroko zereginetan hitz egiteari utzi diotenei, ezinezko zaie gaur egun urteetan sendotutako ohitura linguistikoak aldatzea. Izan ere, egun belaunaldi gazteagoko jendeak eskolan euskara ikasten duen arren, hiztun helduek etxean beren ilobekin gazteleraz mintzatzaren jarraitzen dute. Ohitura linguistikoak aldatzearen ukazineko zailtasunari, gainera, inguru honetako euskaldun helduek beren hizkerarekiko duten kontzientzia linguistiko urria atxiki dakioke. Hiztun helduen aburuz, HMBk erabilgarritasunik gabekoa eta transmititzeko merezimendu gutxikoa izaten segitzen du. Urte askotan beren hizkuntzarekiko sentitu duten ahalkeak bizirik dirau hein handi batean. Orain euskara prestigioduna izan daitekeela uste dute, baina, inola ere ez, beraiek hitz egiten duten hizkera.

DESAGERTZEAR DAUDEN HIZKUNTZEN EZAUGARRI SOZIOLINGUISTIKO OROKORRAK

Esan bezala, aipatu maila guztietako menpekotasunak eta hizkuntza menperatuen prestigiorik eta erabilgarritasunik ezak hainbat ondorio soziolinguistiko eragiten dituzte. Lau ezaugarri dira ondorio soziolinguistiko aipagarrienak: gizartean hizkuntza txikiak jasaten duen ordezkatzeko gradualak sorrarazitako hiztun talde mota ezberdinak, hizkuntza hauen hiztunen jokaera garbizalerik eza, hizkuntzaren erabileraren murrizketa eta transmisio linguistikorik eza.

HIZTUN TALDE MOTAK

Hizkuntza baten heriotz prozesua bat-batekoa denetan, hots, hiztun taldearen hiltzearen ondorioz jazo denetan, hizkuntza horren azken hiztunak hiztun-osoak edo hizkuntza bere osotasunean menperatzen duten hiztunak izan ohi dira. Hiztun hauek hizkuntzaren egitura fonologikoa,

morfologikoa, sintaktikoa eta lexikoa osorik erabil eta menpera ditzaketen hiztunak dira (ik. Swadesh-en (1948) lanean yahi hizkuntzaren kasua). Aldiz, hizkuntz ordezkatzeari mailakakoa den kasuetan, hizkuntza txikiak mintzatzen diren hiztunen artean kualitatiboki nahiz kuantitatiboki erabilera ezberdina duten hiztun taldeak bereiz daitezke.

Dorian-ek (1973) hiru hiztun mota ezberdin bereizten ditu Sutherlandeko gaelikoaren inguruan eginiko lanean: hiztun-oso helduak (*old fluent speakers*), hiztun-oso gazteak (*younger fluent speakers*) eta hiztun-erdiak (*semi-speakers*), hain zuzen. Hegomendebaldeko bizkaieraren azterketan Dorian-ek agertutako hiztun banaketa honetan oinarritu naiz funtsean. Dena dela, zenbait ohar edo xehetasun agertu behar ditut. Batetik, argitu behar dut Dorian-ek (1981) hiztun-osoaren artean hiztun-oso helduak eta gazteak ezberdintzen dituen bitartean, nire lanean ez dudala hiztun-osoaren artean bereizketarik egin. Dorian-ek bereizketa hau Sutherlandeko gaelikoaren hiztun talde oso helduen eta gazteen artean ediren dituen erabilera eta ezagutza ezberdinetan oinarritu du. Nire ikerketan, aldiz, hiztun-osoaren artean erabateko batasunik ez dagoela ohartu naizen arren, ez dut Dorian-ek proposatzen duen talde bikoizketa egiteko adina ezberdintasun hauteman. Hortaz, ezberdintasunak ezberdintasun, hiztun-osoaren taldea talde bakar gisa ikertu dut. Gainera, berriro ere Dorian-en eredutik aldentuz, aipatutako hiztun talde bi hauek gain, HMBren ikerketa soziolinguistikoan hirugarren talde bat hartu dut gogoan, euskara batuaz mintzatzen den hiztun-berrien taldea, hain zuzen. Aitzitik, ikerketa linguistikoan azken talde honetako hiztunen erabilerak ez ditut aintzakoztat hartu. Bakar-bakarrik HMBz mintzatzen diren hiztunen erabilerak izan ditut aztergai.

Hiztunen arteko ezberdintasuna, esan bezala, hiztunen erabileraren nolakotasunean eta maiztasunean oinarritzen da. Badirudi, gainera, orain arteko lanetan bakanka adierazi den arren, hiztun hauen artean jabekuntzaren araberrako bereizketak ere hauteman daitezkeela (Dorian 1981).

Erabilerari dagokionez, hiztun-osoak harreman estuetan, eta bereziki etxe-koetan, hizkuntza txikiak mintzatzen dira. Zenbait ingurune berezietan ere, nagusiki nekazaritzan dyirbalen kasuan (Schmidt 1985b) eta hegomendebaldeko bizkaieraren kasuan (Elordui 1995b) eta arrantzan Sutherlandeko gaelikoarenean (Dorian 1981), komunitate hauetako hiztun-osoek hizkuntza meneratuaz hitz egiten dute. Hiztun-erdiak, hizkuntza txikia amahizkuntza duten arren, eguneroko beharretan bakanka baliatzen dira hizkuntza horretaz. Azken hauek bakar-bakarrik pertsona zehatz batzuekin, normalean beren familiako kide nagusiekin, eta egoera berezietan mintzatzen dira hizkuntza txikian. Hiztun-erdiak hizkuntza meneratzaileraren hiztunak dira lehenengo, eta noizbehinka hizkuntza txikiak baliatzen dira herriko edo etxeko kideren batekin hitz egiterakoan (Dorian 1981, Elordui 1995b).

Hizkuntzaren ezagutzari dagokionez, zenbait ikerlarik (Dorian 1981, Dresler 1972, Elordui 1993, 1995a, 1995b, Schmidt 1985b, e.a.) erabileraren

«Antza, euskaldun heldu-oso askori ere, batik bat aspaldi euskara eguneroko zereginetan hitz egiteari utzi diotenei, ezinezko zaie gaur egun urteetan sendotutako ohitura linguistikoak aldatzea»

«Hizkuntz ordezkatzearako mailakakoa den kasuetan, hizkuntza txikiaz mintzatzen diren hiztunen artean kualitatiboki nahiz kuantitatiboki erabilera ezberdina duten hiztun taldeak bereiz daitezke»

continuum-eko muturretan ikusten diren hiztunen mintzaera aztertzerakoan, ezberdintasun oso nabariak ediren dituzte. Dorian-ek gaelikoaren inguruan eginiko lanean esaterako (Dorian 1973, 1981), Brora herrian dauden hiztun-oso eta erdien artean ezberdintasun linguistiko aipagarriaz ohartarazten digu. Ikerlari honen arabera, komunitate horretan hiztun-oso helduen eta gazteen erabileren artean bereizteko zailtasunak aurkitu baditu ere, hiztun-oso eta erdien artean erabateko ezberdintasuna soma daiteke. HMBren kasuan ere ikusi dut hizkera honen hizkuntz egituraren gertatu diren aldaketa ugari talde bien erabilerari badagozkie ere, hots, hiztun-osoenei nahiz erdienei, kasu gehienetan aldaketek talde bien erabileraren arteko ezberdintasunak jartzen dizkigutela agerian. Hiztun-erdien mintzaeran hizkuntz egituraren berriguratze, errazte eta galtzeak hiztun-osoenean baino askoz ugariagoak dira (cf. Elordui 1993, 1994, 1995a, 1995b).

Erabilera eta ezagutzaren araberako banaketak lotura zuzena izaten du hiztunen adinarekin. HMBn burutu dudako ikerketaren arabera —baita Dorian-ek (1981) Sutherlandeko gaelikoaz eta Schmidt-ek (1985b) dyirbalez eratuakoetan— hiztun-osoaren taldeko kideak 60 eta 80 urteen bitartekoak dira. Aldiz, 40 eta 60 urteen bitartean aurki daitezkeen hiztun zenbait hiztun-osoaren taldearen barruan sar badaitezke ere, adin honetako gehienak hiztun-erdien taldeari dagozkio. Bestalde, Bizkaiko hegomendebaldean urtetan jende gazteak ez du HMB haurtzaroan bereganatu. Hortaz, hiztun-oso eta erdien seme-alabek hizkeraren ezagutza murrizta dute. Hiztun hauen guztien ilobak gazteleraz elebakarrak edo euskara batuazko hiztunak dira. Haur eta gazte gehienak eta euskara ez dakiten beste guraso askoren seme-alabak hiztun-berrien taldeari dagozkio. Hiztun-berrien taldean, beraz, haurtzaroan nahiz gaztaroan euskara bigarren hizkuntza gisa ikasi duten hiztunak sartzen dira. Hauetako gehienek HMB azal-azaletik ezagutzen dute, euskara batua baizen erakusten ez den euskaltegi eta eskoletan euskalduntutako hiztun taldea baita. Hiztun-berri hauek Bizkaiko hegomendebaldeko euskaldungoaren talde garrantzitsua eta handia osatzen dute. Esaterako, Basaurin biztanlegoaren % 8,61a da euskalduna baina soilik % 5,58rena da euskara ama-hizkuntza; Ugaon ere biztanlegoaren % 27,63 da euskalduna baina soilik % 16,58rena da euskara ama-hizkuntza (Eusko Jaurlaritza 1989).

Azpimarratu behar da, gainera, aipatu talde guztiak bakarka harturik, ez direla talde zeharo homogeneoak. Hiztun-erdien artean, esaterako, jabe-kuntza prozesu ezberdinen araberako bi talde bereiz daitezke. HMBren hiztun-erdien artean kide zenbaitek esan didate txikitan eta gaztetan hiztun-osoak izan direla, baina, hainbat urteren buruan euskara mintzatzeari utzi ondoren, euskara galdu edo ahaztu egin dutela. Hiztunon artean, herri euskaldunetatik gaztelera erabat nagusi den herri edo hirietara joan diren hiztun asko aurki daitezke. Halaber, hiztun-erdien talde honetan jende erdaldunarekin ezkondu den euskaldun ugari dago. Bigarren talde bati dagozkion hiztunek, berriz, ez dute inoiz euskara eguneroko bizi-tzan erabili. Beren lekukotasunen arabera, betidanik elebidun izan dira

eta giro elebidunetan bizi izan dira. Hitzun hauek txikitatik gaztelera beren eguneroko bizitzan hizkuntza nagusia izan dela esan didate (cf. Elordui 1995b).

Aurreko guztia laburbilduz, esan daiteke hitzun taldeak erabileraren, eza-gutzaren eta jabekuntza prozesuaren arabera bereiz daitezkeela. Hizkuntz heriotza aztergai duen edozein ikerlanek, beraz, interes berezia jarri behar du hitzun talde hauen arteko ezberdintasunetan. Izan ere, hitzun taldeen arteko ezberdintasunen erkaketak heriotz fenomenoaren mailakako bilakabide linguistikoaren berri ematen digu. Horrezaz gain, erkaketa beronek hizkuntzen hiltze prozesuaren adierazgarri linguistiko nagusia erakusten digu: epe oso laburrean, maiz belaunaldi bakar batean, hizkuntza hauek jasan dituzten aldaketa kopuru eta gradu ez ohikoak.

JARRERA GARBIZALERIK EZA

Komunitate hauetako hitzunek hizkuntzarekin duten jarreraz den bezainbatean, Denison-ek (1982) azpimarratzen du hizkuntza terminalen ezaugarri soziolinguistikoaren artean adierazgarrietasuna dela hizkuntza eragilearen aurkako jarrera garbizalerik eza.

Edozein komunitate linguistikotan eredu linguistikoa ezartzen duen hitzun talde bat egon ohi da. Lehen aipatu bezala, prestigidun jendeak, gaurko gizartean politikoek, kazetariak, idazleak, kantariak, zine-jendeak eta abarrek ezartzen dituzte gizartean ontzat edo egokitzen eman ohi diren erabilera linguistikoak. Gainera, egoera normaldua eta erabilera arrunta dituzten hizkuntzen hitzunen eskolako lehendabiziko epeetatik eredu normalduak ikasten dituzte. Hizkuntza ez-normalduen hitzunen artean ere komunitateko pertsona helduenen hizkuntz ohiturek ezartzen dute eredu linguistiko imitagarria. Beraz, aipatu ditugun hitzun taldeen artean hitzun-osoenen taldeko kideek eredu tradizionalaren aldeko jarrera linguistikoak izatea espero genuke, eredu tradizioaletik aldentzen diren formak —interferentziak eragindakoak nahiz hitzun-erdiak sorrarazitakoak— baztertua eta zuzentzea bederen.

Aldiz, komunitate terminal hauetako hitzun-osoenek forma mailegatuak nahiz hitzun-erdiak sorrarazitako berezko egitura idiosinkratikoak baldintzarik gabe onartzeko edo, behintzat, ez kritikatzeko joera erakusten dute. HMBren azterketatik ateratako datuen arabera ikus daiteke, hitzun-osoenei forma zenbait darabiltzaten ala egokitzen jotzen dituzten galde-tzerakoan, beraiek horrelakorik ez luketela erabiliko edo desegokitzen jotzen dituztela erantzuten digutela. Hitzun hauek eredu linguistiko tradizionala zein den ondo dakite. Hala ere, hitzun ez-osoen aurrean ez diote beren erabilerari edo erabilera tradizionalari aparteko lehentasunik ematen. Nolabait esateko, hitzun-osoenek eredu linguistiko egokia —edo «zaharra», beraiek dioten bezala— identifikatzen badute ere, ez dute ikusten eredu hori erakusteko beharra edo eredu horretatik aldentzen diren usadio berriak zuzentzeko beharra. Dressler-ek (1988) hitzunen jarreraz mintzatzerakoan adierazi bezala, hitzun-erdiak ez dira beraiek sorturiko be-

**«Hitzun-erdiak
hizkuntza
meneratzailearen
hiztunak dira
lehenengo, eta
noizbehinka hizkuntza
txikiak baliatzen dira
herriko edo etxeko
kideren batekin hitz
egiterakoan»**

«Bizkaiko hegomendebaldean urtetan jende gazteak ez du HMB hautzarroan bereganatu. Hortaz, hiztun-oso eta erdien seme-alabek hizkeraren ezagutza murrizta dute. Hiztun hauen guztien ilobak gaztelez elebakarrak edo euskara batuazko hiztunak dira»

rrikuntzez ohartzen eta hiztun-osoek erabilera berriak ez zuzentzera jo-tzen dute: «*The resultant semi-speakers fail to notice such "corruptions", while older fluent speakers tend to give up correcting them. This reflects a change in language attitude: the recessive, decaying language is considered worthless, not worthy of being properly transmitted (for discussion, see Ryan 1979). Such attitudinal change produces a relaxation of social, sociolinguistic, and linguistic norms, and thus permits nonintegration of loans*» (Dressler 1988: 188).

Argi dirudi, Dressler-ek esan bezala, komunitate hauetan eredu linguistikoa ezartzen duen talderik ez izateak, hiztunen ustetan, hizkuntzak duen erabilgarritasunik eta etorkizunik ezean duela iturri nagusia. Komunitate hauetako hiztunak maiz inertziaz edo etxeko ohiturari jarraitzeko mintzatzen dira hizkuntza txikiak. Gutxi batzuk dira hizkuntzaren erabilera egokiaz edo etorkizunaz arduratzen direnak. Gizarte hauetako hiztunen artean hizkuntzarekiko ardurarik ez izatea jarrera arruntena da.

Zalantzarik gabe, eredu linguistikorik ez izateak eragin zuzena eta nabaria izan dezake hizkuntzaren erabileran. Bizkaiko hegomendebaldeko euskararen ezaugarria den arau bateraturik gabeko aldakortasuna, esaterako, eredu zehatz bat ez egotearen ondorioztat har daiteke hein handi batean (cf. Elordui 1995a, 1995b).

HIZKUNTZEN EGINKIZUN BANAKETA ETA HIZTUN KOMUNIKAZIO SAREA: HIZKUNTZ ERABILERAREN MURRIZTEA

Hizkuntza baten erabileraren maiztasuna neurtzeko bi auzi nagusi hartu behar ditugu kontutan. Batetik, hizkuntz komunitatean dauden hizkuntzen eginkizun banaketa (*language allocation*) aztertu behar dugu, hau da, komunitatean dauden hizkuntzek betebeharrak zehatz eta finkoak dituzten eta zer-nolakoak diren ikusi. Bestalde, hiztun talde ezberdinen artean dagoen komunikazio sarearen (*communication network*) ezaugarriak uztartu behar dira. Komunikazio sarean harreman horizontalak, hots, belaunaldi bereko jendearen artean daudenak, eta harreman bertikalak, edo belaunaldi ezberdinetako jendearen artean daudenak, bereiziko ditut.

Eginkizun banaketari bagagozkio, hizkuntza txiki hauek oso epe laburrean berez dituzten zeregin urrien murrizte bortitza jasaten dutela azpimarratu da (Dorian 1981, Schmidt 1985b). Aipatutako hizkuntza txikiaren erabilgarritasunik eta prestigiorik ezak eta, batik bat, hizkuntza meneratzailearen erabilgarritasunaren eta prestigioaren handitzeak hizkuntza meneratuen txokoratzea eta behin betiko galtzea ekartzen dituzte.

Aztertutako lanen arabera, hizkuntz komunitate terminaletan gehien-goaren hizkuntzak gutxiengoaren hizkuntzaren zereginak ia erabat ordezkatu aurretik, egoera soziolinguistiko diglosikoa duen edozein gizar-tetan bezalaxe, lehian zeuden goiko eta beheko hizkuntzaren artean eginkizun bereziak ezberdin zitezkeen. Dorian-ek (1981) gaelikoaren ikerketan agertzen du, ingelesak gaelikoaren eginkizun gehienak ordezkatu arte,

hizkuntza bion eginkizun bereizketa arras ondo zehazturik zegoela komunitate horretan. Mende honen hasieran gaelikoa etxean, lanean, elizkizunetan eta lagunen arteko harremanetan erabiltzen zen. Ingelesa, berriz, nazio mailako erakundeekiko harremanetan eta prentsa idatzian. Dyrbalen kasuan ere, bertako biztanleen eta europarren ukitzearen lehendabiziko garaietan leinukideen artean dyirbal erabiltzen zen eta ingelesa soil-soilik gizatalde europarrarekin harremanak izateko orduan ibiltzen zuten (Schmidt 1985b: 30).

Gaur egun, berriz, hizkuntz aukera baldintza konplexuagoek gobernatzen dute. Elkarrizketan dagoen entzulea, gaia, lekuaren ezaugarriak eta hiztunaren beraren konfiantza eta gaitasuna azpimarratzen ditu Schmidt-ek dyirbalen edo ingelesaren erabilera baldintzatzen duten faktoreen artean (Schmidt 1985b: 31). Bizkaiko hegomendebaldean dauden HMB, euskara batua eta gaztelaren arteko aukera ere Schmidt-ek (1985) dyirbalerako aipatzen dituen baldintza bertsuak dira: entzulearen ezagutza, egoera eta hiztunak gaiarekiko duen erraztasuna, hain zuzen. Kasu askotan baldintza hauek guztiak batzen dira eta ez da baldintza bakar bat hiztuna aukera baten edo bestearen alde makurrarazten duena.

Nire ustez, gaur egun entzulearen ezagutzak baldintzatzen du beste ezerk baino areago Bizkaiko hegomendebaldeko komunitateko hiztunen hizkuntz aukera. Euskal Herri osoan arrunta denez, euskaldun ez den pertsona bat elkarrizketan sartzen den unean taldeko kide guztiak sistematikoki gaztelerez mintzatzen hasten dira. Hizkuntz aldaketa sistematiko hau bi arrazoi nagusitan oinarritzen da. Batetik, hiztunek uste dute, taldean euskaraz ez dakien norbait egotekotan, euskaraz hitz egiten jarraitzeak taldeko euskaldunen heziketa txarraren erakuskaria dela. Bestalde, erdaldun ugariak erakutsi ohi duten jarrera mesfidagarriak askotan bultzatzen ditu euskaldunak testuinguru publikoetan beren artean ere gaztelerez mintzatzera.

Kode-aldaketa, baina, ezin zaio beti erdaldun baten partehartzeari leporatu. Izan ere, hiztun-oso eta, batez ere, hiztun-erdien artean guztiz arrunta da gaztelerez mintzatzeko edota gaztelera eta euskararen arteko nahasketak egiteko joera. Sarritan gaiak eta hiztunak gaiarekiko duen erraztasunak baldintzatzen dute kode-aldaketa fenomenoak gertatzea. Hiztun guztiak zenbait gairi buruz mintzatzekoan, bereziki etxeko eguneroko zereginekin edo nekazal bizitzarekin loturik ez dauden gaiez hitz egiterakoan, gaztelera jotzeko ohitura handia erakusten dute. Halaber, hiztun askoren ustetan, gaztelerez hobeto azal daitezke zenbait gairen inguruko auziak eta, beraz, honelako gaiez gaztelera erabiltzen dute, bestelako baldintza eragilerik gabe.

Egoera ere baldintzatzen du, bestalde, hizkuntza baten ala bestearen erabilpena hiztun talde guztien artean. Nahiz eta egun etxean ere HMBz normaltasunez mintzatzen den hiztun kopurua gero eta murriztagoa den, oraindik hiztun-osoaren artean bada etxean eta egoera arras hurbil eta familiarretan HMBz mintzatzen denik. Egoera publiko gehienetan, oster,

**«Komunitate terminal
hauetako hiztun-
osoenek forma
mailegatuak nahiz
hiztun-erdiak
sorrarazitako berezko
egitura
idiosinkratikoak
baldintzarik gabe
onartzeko edo,
behintzat, ez
kritikatzeko joera
erakusten dute»**

**«Komunitate hauetako
hiztunak maiz inertziaz
edo etxeko ohiturari
jarraitzeko mintzatzen
dira hizkuntza txikiaz.
Gutxi batzuk dira
hizkuntzaren erabilera
egokiaz edo
etorkizunaz arduratzen
direnak. Gizarte
hauetako hiztunen
artean hizkuntzarekiko
ardurarik ez izatea
jarrera arruntena da»**

gaztelerak jaun eta jabe izaten jarraitzen du. Bereziki Bizkaiko herri haundienetan (esaterako, Basaurin) gaztelera da testuinguru publikoetan hizkuntza nagusi. Erakundeetan, dendetan, tabernetan eta abar luze batean ezohikoa da bertako euskara edo batua entzutea. Bertako euskaldunek aspaldi mugatu zuten beren euskararen erabilera etxeko lau hormetara eta ez dute ordutik aurrera inguru horretatik atera.

Kalean mintzatzen den euskara batuaren presentzia ere oraingoz oso murrizta da komunitate hauetan. Eskoletan eta zenbait erakundetan euskara batua mintzatzea arrunta bada ere, kaleko eguneroko bizitzan bakanka entzuten da. Euskara batuaren erabilera eginkizun didaktiko eta lan teknikoetara mugaturik dago, haurren eta helduen heziketarekin zehazki erabiltzen diren erabilera batez ere. Orobat, sinbolikoak izan daitezkeen ekin-tza publiko zenbaitetan ere erabiltzen da, hala nola herriko jaietako ekin-tza batzuetan, Korrika-ren egunean, e.a.

Laburbilduz, esan daiteke inguru honetan, bereziki hiri erdaldunduagoetan, euskararen erabilera oso murrizta dela. Gaztelera da etxetik kanpo gehien erabiltzen den hizkuntza. HMB kasurik hoberenetan etxe barnean erabiltzen da, eta kasu hauetan ere gero eta murriztagoa da eguneroko zereginetan HMBz mintzatzen den hiztun kopurua. Euskara batuari dagokionez, batua dakien hiztun kopurua handitzen badoa ere, gaur egun kalean bakanka erabiltzen da. Oraingoz goi-mailako zenbait eginkizunetan eta ekin-tza sinboliko batzuetan erabiltzera mugaturik dago.

Goiago aditzera eman legez, erabileraren murriztea eta, batik bat, behe-rago agertuko dudana transmisio linguistikorik eza ulertzeko ezinbestekoa da belaunaldien artean dagoen komunikazio sareari ere begiratzea. Harreman bertikalaz edo belaunaldi ezberdinetako hiztunen arteko harremanaz den bezainbatean, hiztun-osoak beren artean eta hiztun-erdiekin hizkuntza txikiaz mintzatzen diren bitartean, hiztun-erdiek hizkuntza txikian dituzten harremanak komunitatean helduagoa den jendearekin izatera mugatzen dira. Sutherlandeko gaelikoan, dyirbalean eta HMBn, harreman bertikala gorde den kasuetan belaunaldi nagusiko eta erdiko belaunaldiko jendearen artean baizen ez da mantendu (cf. Dorian 1981, Elordui 1995b, Schmidt 1985b). Komunitateko kide nagusiek, aldiz, ez dute normalean jende gaztearekin hizkuntza txikiaz hitz egiten.

Euskararen kasuan badirudi zenbaitetan euskara batuaren prestigioak mugatzen duela euskaldun zahar eta berrien arteko harremana. Kasu hauetan euskaldun zaharrek HMB erabiltzeko eta belaunaldi batetik bestera transmititzeko nahikoa ona ez dela sentitzen dute. Beste hizkuntza batzuek mintzatzerakoan aditzera eman denez (gogoratu aurreko ataletan nahuatl eta dyirbalen kasuak), hiztun zaharron ustetan, beren hizkera erakusteak haurren eta gazteen heziketa egokia, alegia, euskara batuaz ematen dena, oztopatu baizen ez luke egingo. Haurrek eskolan gaur egun baliagarria den euskara batua ikasten dute eta hori nahikoa da belaunaldi gazteak euskaldunak izango direla ziurtatzeko.

Beste zenbaitetan guztiz kontrako jarrera ere gertatzen da komunitate honetan. Schmidt-ek (1985b) dyirbal hizkuntzaren egoeraz mintzatzerakoan «zuzenketa mekanismoa» (*corrective mechanism*) deitu izan duena ere komunitate honetako ezaugarri arrunta da. Izan ere, belaunaldi nagusiko hiztun batzuk hiztun gazteagoen taldearekin ez hitz egiteko aitazkiatzat hartzen dute hiztun-berrien euskara desegokia, artifiziala eta gipuzkeriaz betea delakoa. Oro har, batua arrotzat jotzen dute eta, beraz, ez dira belaunaldi gazteagoko jendearen mintzaera ulertzen saiatzen ere. Hiztun zaharren jarrera honi hiztun-berriek ere euskalkiaren hiztunak ulertzeko eta haiekin komunikatu ahal izateko zailtasun handiak izatea gainera dakioke. Izan ere, hiztun-berrien euskalkiaren ezagutza ez da nahikoa zabal hitz zaharrekin elkarrizketa normala eduki ahal izateko.

Talde bion jarrerak euskararen erabilera are urriagoa izatera eraman dute. Dudarik ez dago elkar ulertzerik ezak eta talde biek elkarrenganatzeko egiten duten ahaleginen urritasunak euskarazko komunikazioa eta hizkuntza honen garapen normala nabarmenki geldiarazten dituztela. Horrezaz gain, belaunaldi batetik besterako transmisio linguistiko zuzena guztiz oztopatzen dute.

Harreman horizontalean, hots, belaunaldi beraren barruko kideen artekoan ere erabileraren murrizte garrantzitsuak gertatu dira. HMBren kasuan hiztun-osoek belaunaldi bereko jendearekin amahizkuntzaz hitz egiten duten bitartean, hiztun-erdiak gizataldeko kide helduekin, sarritan bakar-bakarrik gurasoekin, baizen ez dira mintzatzen hizkuntza txikiaz (cf. Elordui 1995b eta, Sutherlandeko gaelikoaren kasurako Dorian 1981: 152).

Erabileraren atalarekin amaitzeko, beraz, esan daiteke hizkuntza ahuldu askoren erabileraren murriztean bi urrats nagusi bereiz daitezkeela. Batek, menpekotasun ekonomiko, politiko eta soziokulturalek eragindako hizkuntza txikien ustezko erabilgarritasunik ezak eta prestigiorik ezak hizkuntza hauek lagun eta famili inguruetara txokoratzen dituzte. Bigarren urratsean etxean ere erabilera urritzen da. Familia eta lagun giroetan bertan ere hizkuntza meneratuaren erabilera erdiko belaunaldiaren eta belaunaldi nagusiaren arteko harremanetara mugatzen da. Gertaera honenkin batera transmisio linguistikorik eza hedatzen da.

TRANSMISIO LINGUISTIKORIK EZA

Azkenez, hizkuntza baten hiltzearen ezaugarri garbiena azaldu nahi dut, hots, belaunaldien arteko transmisio linguistikorik eza. Zalantza handirik gabe baieztatu dezakegu hizkuntza bat edo hizkera bat, belaunaldi gazteagoko jendeari transmititzen ez zaionean, hizkuntza hori egoera terminal larrian dagoela.

Hizkuntzen desagertzea ikertu den lanetan haurrek arbasoen hizkuntza ez bereganatzearen arrazoi nagusiak hizkuntza terminalen eragileak eta

**«Hizkuntz komunitate
terminaletan
gehiengoaren
hizkuntzak
gutxiengoaren
hizkuntzaren zereginak
ia erabat ordezkatu
aurretik, egoera
soziolinguistiko
diglosikoa duen edozein
gizartean bezalaxe,
lehian zeuden goiko eta
beheko hizkuntzaren
artean eginkizun
bereziak ezberdin
zitezkeen»**

**«Euskaldun ez den
pertsona bat
elkarrizketan sartzen
den unean taldeko kide
guztiak sistematikoki
gazteleraz mintzatzen
hasten dira»**

ezaugarriak agertzerakoan aipatu ditudan bi fenomenotan dautzala nabarmendu da. Izan ere, haurren sozializazio prozesua hizkuntza menertzailean izateak eta gizartean belaunaldien arteko harremanik ez izateak arras eragiten dute hizkuntza hauen transmisio linguistikoa ez-normala izatea (Dorian 1981, Dressler eta Wodak-Leodolter 1977).

HMBren kasuan, lehenago agertu dudana bezala, transmisio kate arruntaren errautsia mende honen erdian hasi zen. Orobat, ez dirudi azken urteotan euskarak bizi izan duen gorakadak hizkera honen transmisioaren hausketa prozesua inolaz ere gelditu duenik. Aitzitik, HMBren desagertze bilakabideak jarraitzen du, azken urteotan euskararen inguruan egon diren erreibindikapenak hizkeraren erabileran hobekuntzarik eragin gabe.

Zer esanik ez, HMBren desagertzea eragin duten faktoreak azaltzerakoan aipatu ditudan eragile guztiek —diktaturaren garaiko menpekotasun politiko, ekonomiko eta kulturalak nahiz diktaturaren ondorengoek— lagundu dute hizkera honen transmisio linguistikoaren behin-betiko hausketa gerta dadin. Nire ustez, baina, azken urteotan HMBk berreskurapenik ez jasotzeko arrazoi garrantzitsu biak dira Bizkaiko hegomendebaldeko erdiko belaunaldietan HMBz eta, oro har, euskaraz mintzatzen den jende kopurua oso urria izatea eta euskararen normalkuntzarako plangintzaren eta, batik bat, haurren heziketa plangintzaren lehendabiziko urratsetan euskalkien erakusketari batere garrantzirik eman ez izatea. Bi gertaera hauek HMBren eta, orokorki, euskararen transmisio eta erabileraren normalkuntzarako hainbat ondorio kaltegarri ekarri dituzte. Bate-tik, lehenago ere aditzera eman bezala, erdiko belaunaldietako euskaldunen urritasunak etxeko transmisio arruntaren berreskurapena oztopatu du. Plangintzaren akatsak, bestalde, lehendabiziko eta azken belaunaldien artean egon zitekeen harreman linguistikoa trabatu du. Izan ere, eskolan euskalkiaren gutxieneko ezagutza ere ez ziurtatzeak hiztun heldue-nen eta gazteen arteko euskarazko komunikazioa eragozti du hein handi batean.

ONDORIOAK

Amaitzeko, aurkezpen osoaren ondorio gisa esan daiteke hizkuntza terminalen eragile soziologikoez nahiz ezaugarri soziolinguistikoez mintzatu naizen ataletan ikusi ahal izan dugunez, hiltorian dauden hizkuntzek, kasuan kasuko berezitasunak dituzten arren, desagertzea sorrarazten duten eragile soziologiko amankomunak eta egoera terminala erakusten duten ezaugarri antzekoak dituztela. Egoera terminalaren eragile nagusienak dira menpekotasun ekonomiko, politiko eta kulturalak eta berauek dakarten prestigiorik eta erabilgarritasunik eza. Bizkaiko hegomendebaldeko euskararen kasuan, gainera, azpimarratu ditut, besteak beste, erdiko belaunaldietan dagoen hutsune soziolinguistikoa eta ohitura linguistikoak aldatzeko zailtasuna.

Egoera terminalaren ezaugarriak aipagarrienak dira erabileran eta eza-

gutzan ezberdintzen diren hiztun talde ezberdinak egotea, hiztunen artean jarrera garbizalerik ez izatea eta, azkenez, ahultzearen ezaugarri garbienak direnak, hau da, belaunaldien arteko harremanik ez izatea eta transmisio linguistikorik eza.

Hizkuntza ahulduen azken bi ezaugarri hauekin eta, zehazkiago, HMB-ren ezaugarri bi hauek Bizkaiko hegomendebaldeko euskararen egoera soziolinguistiko orokorrerako dakartzaten ondorioekin amaitu nahi dut aurkezpen hau. Nire ustez, oso kontutan hartzekoa da HMB ez transmititzeak eta ez erabiltzeak ez dutela hizkera honen iraupena soilik eragozten. Dialektoaren transmititzerik ezaz, beronen iraupena ezezik, inguru honetan euskara osoak normalkuntzarako jarrai zezakeen bidea ere oztopatzen da. Izan ere, belaunaldien artean harreman linguistikorik ez izateak euskara batuaren nortasun artifiziala sendotu eta edozein bigarren hizkuntza gisa ikasteko joera areagotzea lortu du. Ondorioz, euskalkiaren eta euskara batuaren artean eginkizun banaketa arrunta, hau da, estandar eta dialekto baten artean ohikoa den zeregin banaketa, gertatu beharrean, HMBk bere ohiko eginkizunak galdu ditu, gaztelerak bereganatu dituelarik. Euskara batua, bestalde, ez da lagun eta familiarren artean oraindik garatu eta testuinguru akademikoetara eta administratiboe-tara mugaturik geratu da.

BIBLIOGRAFIA:

ANDERSEN, R. W. 1982. *Determining the linguistic attributes of language attrition*, in Lambert eta Freed, 83-118.

CAMPBELL, L. 1975. *El estado actual y la afinidad genética de la lengua indígena de Cacaopera* La Universidad, (revista de la Universidad del Salvador) (Urtarrila-Otsaila), 45-54.

CAMPBELL, L. eta MUNTZEL M. C. 1989. *The structural consequences of language death*, in Dorian (arg.), 181-196.

CAMPBELL, L. eta RINGEN J. 1981. *Teleology and the explanation of sound change*, Phonologica 1980.

BAVIN, E. L. 1989. *Some lexical and morphological changes in Warlpiri*, in Dorian (arg.), 267-285.

BONAPARTE, L. L. 1869. *Le verbe basque en tableaux, accompagné de notes grammaticales, selon les huit dialectes de l'euskara: le guipuscoan, le biscaïen, le haut-navarrais septentrional, le haut-navarrais méridional, le labourdin, le bas-navarrais occidental, le bas-navarrais oriental et le souletin; avec les différences de leurs sous-dialectes et de leurs variétés. Recueilli sur les lieux mêmes de la bouche des gens de la campagne, dans cinq excursions linguistiques faites dans les sept provinces basques d'Espagne et de France pendant les années 1856, 1857, 1866, 1867, 1869, Londres.*

DENISON, N. 1977. *Language death or language suicide?* in Dressler eta Wodak-Leodolter (arg.), 13-44.

**«Bertako euskaldunek
aspaldi mugatu zuten
beren euskararen
erabilera etxeko lau
hormetara eta ez dute
ordutik aurrera inguru
horretatik atera»**

**«Batua arrotzat jotzen
dute eta, beraz, ez dira
belaunaldi gazteagoko
jendearen mintzaera
ulertzen saiatzen ere.
Hiztun zaharren jarrera
honi hiztun-berriek ere
euskalkiaren hiztunak
ulertzeko eta haiekin
komunikatu ahal
izateko zailtasun
handiak izatea gainera
dakioko»**

- 1982. *A linguistic ecology for Europe?*, *Folia Linguistica* 16, 5-15.
- DIMMENDAAL, G. J. 1989. *On language death in Eastern Africa*, in Dorian (arg.), 13-31.
- DORIAN, N. 1973. *Grammatical change in a dying dialect*, *Language* 49, 414-438.
- 1976. *Gender in a terminal Gaelic Dialect*, *Scottish Gaelic Studies* 12, 279-282.
- 1977a. *A hierarchy of morphophonemic decay in Scottish Gaelic language death: the differential failure of lenition*, *Celtic Linguistics* 1976, 96-109.
- 1977b. *The problem of the semi-speaker in language death*, in Dressler eta Wodak-Leodolter (arg.), 23-32.
- 1978. *The fate of morphological complexity in language death*, *Language* 54, 590-609.
- 1980. *Maintenance and loss of same-meaning structures in language death*, *Word* 31, 39-45.
- 1981. *Language death: the life cycle of a Scottish Gaelic dialect*, University of Pennsylvania Press, Philadelphia.
- 1982a. *Defining the speech community to include its working marking*, in Romaine (arg.), 25-33.
- . 1982b. *Language loss and maintenance in language contact situations*, in Lambert eta Freed (arg.), 44-59.
- 1985. *Vocative and imperative in decline*, in Pieper eta Brickel (arg.) *Studia Linguistica Diachronica et Synchronica*, Mouton de Gruyter, Berlin / N. York / Amsterdam, 161-174.
- 1986. *Making do with less. Some surprises along the language death proficiency continuum*, *Applied Psycholinguistics* 7, 257-276.
- (arg.). 1989. *Investigating obsolescence. Studies in language contraction and death* *Studies in the Social and Cultural Foundations of Language* 7, Cambridge University Press, Cambridge.
- DRESSLER, W. U. 1972. *On the phonology of language death*, in Dressler eta Wodak-Leodolter (arg.), 23-32.
- 1981. *Language shift and language death: a protean challenge for the linguist*, *Folia Linguistica* 15, 5-28.
- 1988. *Language death*, in F. Newmeyer (arg.), *Linguistics. The Cambridge Survey IV*, Cambridge University Press, 184-192.
- 1991. *The sociolinguistic and patholinguistic attrition of Breton phonology, morphology and morphonology*, in W. S. Seliger eta R. M. Vago (arg.), *First language attrition*, Cambridge University Press, Cambridge, 99-112.

DRESSLER, W. U. eta WODAK-LEODOLTER R. (arg.). 1977. *Language death*, International Journal of the Sociology of Language 12.

-1977. *Language preservation and language death in Brittany*, in Dressler eta Wodak-Leodolter (arg.), 33-44.

ELORDUI, A. 1993. *Cambios lingüísticos externos e internos en la estructura morfológica del vizcaíno suroccidental*, II Encuentro de Lingüística en el Noroeste, Memorias 2, Departamento de Letras y Lingüística, División de Humanidades y Bellas Artes, Universidad de Sonora, México, 41-61.

-1994. *Aportación del estudio de los dialectos terminales en la planificación lingüística de la lengua vasca*, agertzeko in XII Congreso Nacional de AES-LA, Nuevos horizontes de la lingüística aplicada (Universidad Autónoma de Barcelona 1994).

-1995a. *Hegomendebaldeko bizkaieraren aditz egituraren aldaketa-bilakabidea eta hizkuntz desagertzea*, agertzeko in J.A. Lakarra eta J. Ormazabal (arg.), Euskal Morfologia eta Morfologi Teoria Kongresua (Donostia 1994ko abuztuaren 1-5), ASJU-ren Gehigarriak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

-1995b. *Hizkuntz heriotza eta aldaketa morfoloikoa: Hegomendebaldeko bizkaieraren kasua*, Tesi-lana, EHU.

FERGUSON, C. A. 1959. *Diglosia*, Word 15, 325-340.

FISHMAN, J. A. 1967. *Bilingualism with and without diglossia; diglossia with and without bilingualism*, Journal of Social Issues 23, 29-38.

GAL, S. 1979. *Language shift: social determinants of linguistic change in bilingual Austria*, New York Academic Press, New York.

-1989. *Lexical innovation and loss: the use and value of restricted Hungarian*, in Dorian (arg.), 313-331.

GIACALONE Ramat, A. 1983. *Language shift and language death*, Folia Linguistica 17, 495-507.

HILL, J. 1973. *Subordinate clause density and language function*, in C. Corum, T. C. Smith-Stark, and A. Weiser (arg.), *You Take the High Node and I'll Take the Low Node*, Chicago Linguistic Society, Chicago, 33-52.

-1978. *Language death, language contact and language evolution*, in W.C. Mc. Cormack eta S.A. Wurn (arg.), *Approaches to language*, Mouton, The Hague, 45-78.

-1983. *Language death in Uto-Aztecan*, International Journal of American Linguistics 49, 258-76.

HILL, J. eta HILL K. 1977. *Language death and relexification in Tlaxcalan Nahuatl*, in Dressler eta Wodak-Leodolter (arg.), 55-69.

-1986. *Speaking Mexican*, The University of Arizona Press, Tucson.

«Eskolan euskalkiaren gutxieneko ezagutza ere ez ziurtatzeak hiztun helduenen eta gazteen arteko euskarazko komunikazioa eragotzi du hein handi batean»

«Euskalkiaren eta euskara batuaren artean eginkizun banaketa arrunta, hau da, estandar eta dialekto baten artean ohikoa den zeregin banaketa, gertatu beharrean, HMBk bere ohiko eginkizunak galdu ditu, gaztelerak bereganatu dituelarik»

HUFFINES, M. L. 1989. *Case usage among the Pennsylvania German sectarians and nonsectarians*, in Dorian (arg.), 211-226.

KIEFFER, C. 1977. *The approaching end of the relict Southeast Iranian languages Ormuri and Parbaçci in Afghanistan*, in Dressler eta Wodak-Leodolter (arg.), 71-100.

KING, R. 1989. *On the social meaning of linguistic variability in language death situations: variation in Newfoundland French*, in Dorian (arg.), 139-148.

KNAB, T. eta DE KNAB L. H. 1979. *Language death in the valley of Puebla: a socio-geographic approach*, *Proceeding of the Berkeley Linguistic Society* 5, 471-83.

KUTER, L. 1989. *Breton vs. French: language and the opposition of political, economic, social, and cultural values*, in Dorian (arg.), 75-90.

MILLER, W. 1971. *The death of language, or Serendipity among the Shosshoni*, *Anthropological Linguistics* 13, 114-20.

MÜHLHÄUSLER, P. 1974. *Pidginization and simplification of language*, *Pacific Linguistics Series* 26, The Australian National University, Canberra.

SASSE, H.-J. 1990. *Theory of language death and language decay and contact-induced change: similarities and differences*, *Arbeitspapier* 12, Institut für Sprachwissenschaft, Univ. Köen.

SCHMIDT, A. 1985a. *The fate of ergativity in dying Dyirbal*, *Language* 61, 378-96.

-1985b. *Young people's Dyirbal. An example of language death from Australia*, Cambridge University Press, Cambridge.

SILVA-CORVALÁN, C. 1992. *Tense-mood-aspect across the bilingual continuum*, (esk.), University of California.

SWADESH, M. 1948. *Sociologic notes on obsolescent Languages*, *International Journal of American Linguistics* 14, 226-35.

TAYLOR, A. R. 1989. *Problems in obsolescence research: the Gross Ventres of Montana* in Dorian (arg.), 167-179.

TRUDGILL, P. 1977. *Creolization in reverse: reduction and simplification in the Albanian dialects of Greece*, *Transactions of the Philological Society*, 1976-7, 32-50.

-1983. *On dialect. social and geographical perspectives*, New York University Press, New York.

TSITSIPIS, L. D. 1984. *Functional restriction and grammatical reduction in Albanian language in Greece*, *Zeitschrift für Balkanologie* 20, 122-31.

WILLIANSO, R. C., VANEERDEJ. A. eta WILLIANSO V. 1983. *Language maintenance and shift in a Breton and Welsh sample*, *Word* 34, 267-88.